


Uztaraba

Plan Agroalimentarioa,

GASTEIZERAKO NEURRIAK



**Euskal
Eredua**



ehbildu



Sarrera:

Lehen sektoreak krisi ugari bizi ditu.

Lurra eskuratzeko zailtasuna, belaunaldien arteko txandatzerik eza, lan-baldintzen prekaritatea, indarrean dauden araudien zorrotasuna, sektorearen aitortzarik eza, aldaketa klimatikoaren ondorioak edo nekazaritzaren arloko multinazionalen eragindako presioarekin, oro har, sektorea ez da batera erakargarria, sarritan gainbehera doan eta etorkizunik ez duen sektore gisa ikusten baita. Gai horiek guztiek euren isla dute, bai maila globalean, bai tokian-toki, eta azken horretatik lan egin behar da aitortua izan dadin: bizitzarako eta lurraldea mantentzeko ezinbestekoa den sektorea, eta potentzial handia duena irizpide sozio-ekologikoetan eta ekonomiaren birlokalizazioan.

Euskal Herria Bilduk oinarriak jarri nahi ditu geure udalerriko nekazaritza elikagaien ingurune bidezkoago, jasangarriago eta osasungarriago baterako trantsizioa bermatzeko, elikadura-subiranotasunaren eta elikadura-eskubidearen ikuspegitik. Eta, horretarako, jakin badakigu sektoreak dituen aipatutako zailtasuneigehitzen zaiola egoera global nahasi bat populazio guztiarentzako, eta gogora ekartzen digu oso garrantzitsua dela gertuko elikagaien hornikuntza iturri fidagarri eta dibertsifikatuak izatea. Azken hilabeteetako oinarritzako produktuen garestitzeak agerian uzten ditu ekoizpen eta banaketa-kate urrunden menpe egoteak eragiten dizkigun arazoak, etekina espekulazio-



-terminoetan maximizatzen duten bitartekariekin, ekoizleak eta kontsumitzaileak pobretuz. Proposatzen ditugun ekintzak arnas luze-koak dira, baina isla izango dute gasteiztarren eguneroko beharretan: elikagai eskaintza aberatsa, askotarikoa, hurbila eta kalitatezkoa indartzea eta areagotzea, kanpoko mendekotasun hori murrizteko eta erosketa-saskia merkatzen laguntzeko.

Gasteizko udalerriak ezaugarri aparte-koak ditu nekazaritzaren ikuspuntutik. EAEko udalerririk handiena da (27.600 ha), 63 landa-gunerekin, eta nekazaritza-eremu zabala du, hainbat habitat natural, zelai eta baso izateaz gain. Hau da, behar adina espazio eta baldintza egokiak ditu nekazaritzako elikagaien estrategia arrakastatsua garatu ahal izateko.

Arrakasta hori, era berean, estrategia hori inguratzen duen lurraldearekin bat-egitearen araberakoa izango da. Eta, horri dagokionez, berriz ere ezaugarri mesedegarriak ditugu: Gasteizen kontsumitzaile asko biltzen dira, eta, nekazaritzarako eremu zabala izan arren, autohornikuntzarako aukerarik ez dutenak, eta Arabak, bere ekoizle-potentzialarekin, kontsu-

mitzaile horien beharra du. Hurbileko ingurunera begirako produkziorantz eta 0 km kontsumorantz jotzea posible da, beharrezko sinergiak sortzen badira.

Garrantzitsua da, halaber, azpimarratzea ingurumenaren arloan kontzientziatuta dagoen biztanleria baten ezaugarria, eta tokiko nortasunean «green» izateak duen pisua. Ingurumenaren eta nekazaritza-elikagaien artean harreman estua dagoela aski onartuta badago ere, azken horiek ez dute behar adinako pisurik izan udalerraren iraunkortasun-politikan. Euskal Herria Bilduk uste du beharrezkoa dela gabezi hori zuzentzea eta potentzial agroekologiko guztia garatzea udalerraren eta lurraldearen jasangarritasunerako ibilbide-orrian, udalerrria deskarbonizatzen lagunduko digun nekazaritza eta abeltzaintza eredu baten alde eginez.

Horregatik guztiagatik, uste dugu Uztabaren barruan berriazko hedapen bat egin daitekeela Gasteizerako, herrialderako geure proposamenean jada jasota dauden ekintzekin bat eginez, eta hiriburuan ere garapen propioa izango dutela.

Gasteizerako ekintzak:

- 1. Lurraren mahaia sortzea (Elikadura-kontseilua):** Gobernantza-esparru berriak sortzeko premiei erantzunez eta Uztaraban proposatutako elikadura-kontseiluen espirituari jarraituz, Lurraren Mahaia sortzea izango da garatu beharreko lehen ekintzetako bat, Gasteizko Udalaren, udal-herria osatzen duten herrietako batzar administratiboen, eta sektorearekin zerikusia duten eragileen (ekoizleak, kontsumitzaileak, gizarte-eragileak, etab.) arteko eztabaidagune eta topagune izango dena.
- 2. Irizpide agroekologikoak sartzea hiri-gintza-plangintzan (HAPO):** Ekoizleek aurkitzen duten traba nagusietako bat hiri-gintza plangintzekin lotuta dagoela jakinda, HAPOn irizpide agroekologikoak txertatzea proposatzen dugu, nekazaritza eta abeltzaintza-jarduera intentsiboa zaindu, sustatu eta erraztuko duen planifikazioa indarrean izan dezagun.
- 3. Udal-lurren banku bat sortzea:** Sektorean lan egiten hasteko zailtasun nagusietako bat lurrerako sarbide falta da; hori dela eta, udal-lurren banku bat sortuko dugu, sektorean pertsona berriak sartzea erraztuko duena, eta hura osatzen duten orubeen ekoizpen-balioari eustea ahalbidetuko duena.
- 4. Landa-eremurako aholkularitza:** Landa-eremuko guneen tipologia desberdina kontuan hartuta, eta bakoitzak bere nekazaritza-potentziala garatzeko eta elikadura-subiranotasunean aurrera egiteko aukera izan dezan, berriazko aholkularitza bat jarriko dugu abian landa-eremurako, herri bakoitzarentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak lantzen errazteko, hala nola: instalazio berriak ezartzea, elikatze eskubidea, lurzoruaren kalitatea ezagutzea, etab.
- 5. Basaldea indartzea:** Basaldea proiektua nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua egin nahi duten pertsonentzako benetako erreferentzia-zentro gisa funtzionatzea nahi dugu. Horregatik, behar duen bultzada emango diogu jardueraz betetzeko eta berrikuntzarako, jardunbide egokiak garatzeko, eta sektorerera hurbiltzeko gune gisa indartzeko.
- 6. Nekazaritza eta abeltzaintzako eredu jasangarrien proiektu pilotuak garatzea:** Gaur egun, nekazaritza eta abeltzaintza es-tentsibotik eta industrialetik aldentzen ari diren eredu eta praktika desberdinak daude, eta ingurunetik hurbilago dauden formulen aldeko apustua egiten ari dira, jasangarriagoak eta osasuntsuagoak pertsonentzat eta ingurumenarentzat, hala nola nekazaritza eta abeltzaintza erregeneratiboarentzat. Praktika horiek zabaltzea eta ezagutzea errazteko, arlo horretako proiektu pilotuak bultzatu eta lagunduko ditugu.
- 7. Lehen sektoreari berriaz zuzendutako laguntza programa:** Sektoreak jasaten dituen krisi ugariak kontuan hartuta, urte anitzeko laguntza-programa bat sortzea bultzatuko dugu, hainbat ildorekin, beste eremu batzuetatik ezartzen diren laguntzak osatzeko, eta arreta hainbat arlotan jartzeko, hala nola: ohiko nekazaritza-tik nekazaritza ekologikora igarotzea; sektorean pertsona berriak sartu ahal izatea; belaunaldien arteko txandatzatzea, eguneratzeak eta pres-takuntza erraztea; eta instalazioen eragin-kortasun energetikoa eta hidrikoa hobetzea.
- 8. Belaunaldien arteko txandatzaren azterlana eta neurri espezifikoak:** Datuek adierazten digutenez, alarma sortzen ari da sektorea zahartzen ari delako (Arabako ha-

mar nekazarietatik lauk 60 urte baino gehiago dituzte); horregatik, uste dugu berariazko lan bat egin behar dela arlo horretan inplikaturako gainerako administrazio eta erakundeekin batera, eta berariazko foro batean jorratuko da.

9. Ingurumen-hezkuntzako lerro bat garatzea:

Ingurumen-hezkuntzak zeregin azpimarragarria du balio eta jarrera-aldaketen implementazioan. Sektorea duintzen eta lurrarekin eta elikadurarekin lotutako lanei balioa ematen laguntzeko, publiko orokorrari zuzendutako kontzientzia hartzeko eta sentsibilizatzeko ohiko kanpainez gain, eskola-umeentzako ingurumen-hezkuntzako ildo espezifikoak ezarriko ditugu, udalariaren nekazaritza gaitasunak duen balioa agerian uzteko.

10. Euskadiko biodibertsitate landuaren zentroa sortzea eta mantentzea:

Material filogenetikoak berreskuratzearen eta kontserbatzearen garrantzia jakinda, eta Euskadiko Hazien Sareak horretarako egiten ari den lanari jarraituz, landutako biodibertsitatearen zentro bat sortzea eta mantentzea bultzatuko dugu.

11. Transformazioko zentro primario bat abian jartzea:

Produktuei irtenbideak emateko aukerak zabaltze aldera, Gasteizko Azoka merkatuan transformazio-zentro bat martxan jartzea proposatzen dugu, produktuak garbitu, manipulatu, eraldatu eta ontziratzeak aukera eskainiko duena. Zentro hori hornidura-merkatuan bertan paratzeak, era berean, sinergiak sortzea ahalbidetuko du produktua banatzerakoan.

12. Udal jantokien pleguak berrikustea:

Administrazio publikoak zuzeneko kontsumitzaile gisa duen zeregina kontuan hartuta, udal jantokietarako produktuen hornidurarekin zerikusia duten plegu guztiak berrikusiko ditugu, hornitutako produktuak ekologikoak eta hurbilekoak izan daitezen irizpideak sartzeko. Horrela, pro-

duktu horien eskaria handitzeaz gain, jantoki horietan horien kontsumoaren aldeko kultura sortzen ere lagunduko da.

13. Eskola-jantokien egokitzapena:

Inplikaturako administrazioekin lankidetzan, Gasteizko ikastetxe publiko bakoitzean sukalde propioa jartzea aztertuko dugu, eta, apurka, instalazio horiek sortzen joango gara, eskainitako menuak tokian bertan prestatu ahal izateko eta ikastetxeak eskainiko diren menuen diseinuan eta kontrolean parte har dezaten errazteko.

14. Auzoko merkatu berriak sortzea:

Hurbileko produktuen kultura eta kontsumoa sustatzeko, besteak beste, produktu horiek eza gutu behar dira, eta produktu horiek erraz eskuratzeko aukerak jari behar dira. Tokiko merkatuak tresna ona dira horretarako, eta, horregatik, merkatuak sortuko ditugu Salburua, Zabalzana eta Lakua auzoetan. Bi helbururekin: herritarrei hurbileko produktuetarako sarbidea erraztea eta tokiko ekoizleei salmenta aukera gehiago ematea.

15. Ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko zuzeneko harremanei laguntzea:

Ekoizpearen eta kontsumoaren arteko harremanak estutzeak bertute ugari ditu; hala ere, harreman horri ez zaizkio zailtasunik falta, eta, horregatik, bien arteko lankidetzaren sistemei babesa eta sostengua emanez lan egingo dugu, hala nola: kontsumo-taldeak, berme-sistema parte-hartzaileak eta antzekoak.

16. Hiri-baratzeak sortzea:

Hiriko baratze ezberdinetan egindako ibilbideak erakusten digu onura ugari dituztela: lurra hurbiltzea, ezagutza sortzea, belaunaldien arteko harremanak sustatzea, eta gizarte-kohesioa hobetzea. Horregatik, ez gara egungo baratzeekin konformatuko; gainera, ez dute egungo eskaria betetzen, eta Gasteizko auzo guztietan hiri-baratzeak arian-arian ezartzeko lan egingo dugu, bakoitzarentzat auzoko ezaugarrietara hobekien egokitzen den kudeaketa-formula bilatuz.



17. Agroekologiaren aldeko udalerrri-sarean

sartzea: Sare-lanak elkarri laguntzeko, udalen arteko lankidetzarako, eta jardunbide egokiak ezagutzeko duen garrantzia aintzat hartuta, besteak beste, Gasteiz Agroekologiaren aldeko udalerrien sareko kide egingo dugu. Sare hori Estatuko sare ezagun bat da, eta nekazaritzako elikagaien arloan egiten duten lana dela-eta garrantzitsuak diren udalerriek osatzen dute. Beste sare edo plataformekin bat egitea komeni den aztertuko da, halaber.

18. Elikagaien xahutzearen aurkako borroka: Kontsumitzaileen eta ekoizle handien kontzentrazio handia dela-ta, banaketa-en-

presekin, kontsumitzaileen elkarteekin eta merkataritza eta ostalaritza-elkarteekin lan egingo dugu, helburu bikoitza duten ekintzak garatzeko: hondakinen sorrera murriztea eta elikagaien xahuketa murriztea.

19. Estrategia agroalimentario berria:

Uztaraba Araba osorako proposamenean jasota dauden neurriak, hemen deskribatutakoak, eta beste batzuk egituratzeko, Gasteizek egun duen estrategia agroalimentarioa baino asmo handiagoko plan bat eduki behar da, eta plan hori definitzeko, irismena erabakitzeko eta lantzeko ardura Elikadura Kontseiluak eztabaidatu beharreko lehen zereginetako bat izango da.

ehbildu



gasteiz.ehbildu.eus



gasteiz@ehbildu.eus



[EHBilduGasteiz](#)



[EH Bildu Gasteiz](#)



[EH Bildu Gasteiz](#)



[@ehbildugasteiz](#)



[EH Bildu Gasteiz](#)